

» TELEGRAMA

Apirilaren 12an hasi zen Durangoko **Topaklown**, izenak adierazten duen moduan klowna praktikatzen dutenen bilgunea izateko asmoa daukana: hilaren 16ra arte egitarau zabala osatu dute *STOP* Zorionekoak punk zaleak, beraientzat antolatu baitute kontzertu oso interesgarri bat apirilaren 15ean Gasteizko Jimmy Jazz aretoan: **The Exploited** eta **The Casualties** ariko dira: astindu gandorrak! *STOP Harrotu ileak!* proiektuak Tabakalerako erabiltzaile ugariak espazioarekin duten harremana aztertzen du. Gaiari buruzko erakusketa ikus daiteke Donostiako kultura garaikideko zentroan maiatzaren 5era arte *STOP*

» DISKOA

Esperimentatzeko gogoia



Joxi Ubeda



Hatsa

BEGIZ BEGI

Baga Biga, 2016

Baionako Begiz Begi taldeak bere ibilbidean beste urrats bat aurrera egin du *Hatsa* diskoarekin. Beren hirugarren lana da *-Joan ihes egin baino lehen* (2015, Miraila produkzioak) eta *Nora joan?* (2013, Miraila produkzioak) dira aurreko biak-, atsegin duten enborretik adar berriak bilatzeko beste saio bat, ohikoak ez diren doinuak eta ukituak probatzeko.

Azkue fundazioak antolatutako Banden Lehia irabazi izanaren ondorioa da *Hatsa* diskoa. Sari gisa, sei piezako lana grabatu dute Kaki Arkarazok lagunduta, Andoingo Garate estudioan, modu analogikoan eta ia zuzenean.

Hari batez josi dituzte kantuak, euskal mitologiari lotuta. Beren kezka azaltzen dituzte paralelismo bat egiten euskal mitologiarekin. Odei Barroso bertsolariak idatzi ditu hitzak, eta Maiana Agorrodoi marrazkilariak egin du azala, euskal etxea irudikatuz egungo jendar-tearen bihotz gisa.

Kantuetan, post-rock aireak, doinu progresiboak, giroak eta ohiko rock egiturak hausteko ahaleginak suma daitezke. Gitarretan oinarritutako doinuak dira, baina biolinak bere ukitua ematen dio. Pasarte lasaiak, malenkoniatsuak eta pisu handiko une indartsuak daude kantuetan, intentsitate handikoak, eta euskal doinu tradizionalen zantzuak ere antzeman daitezke. Kantuak behin baino gehiagotan entzun behar dira xehe-tasun guztiez jabetzeko.

Taldeak bilakaera nabarmena izan du 2007an sortu zenetik. Patxi Amulet eta Xabi Etxeberrri bikote gisa hasi ziren, folk eta pop kutsuko kantuak egiten. 2010ean Sebastien Luc, Nicolas Armendariz eta Peio Lambert haiekin elkartu ziren, taldea osatu, eta rock progresiboa eta psikodelikoa lantzen hasi ziren. Esperimentatzeko gogoarekin, eta azken urteotan egin dituzten kantuak eta hiru diskoak dira nahi horren ispilu. ■

Baionako Begiz begi taldeko kideak.

